

Bakardadea



DIANA FRANCO EGUREN

Duela urte asko, Steven Spielberg-en *AA* (Adimen Artifiziala) pelikula ikusi nuen. Pelikula hartan, *AA*z hitz egiterakoan ez zen eraginkortasunaz hainbeste ari, bakardadeaz baizik. Pelikulan bazen peluxecko hartz bat, bere baitan txatbot bat zuena, haurrek norekin jolastu, hitz egin, denbora pasa izan zezaten.

Panpinekin hitz egiten orduak eta orduak gogoratzen dut nire ahizpa, norekin jolastu ez zuenean. Jolasteko modu horri adituek jolas sinbolikoa deitzen omen diote. *AA* pelikulan hartzarekin jolasten zuen haurra jolas sinbolikoan zebilen?

Gure gizarteetan azken urteotan oso ohiko bilakatu da pertsona nagusiei Alexa moduko gailu adimentsuak oparitzea, horrela bakarrik sentitzen direnean euren hitz egin dezaketela argudiatuta. Pertsonekin beharrean, makinekin hitz egite horrek harreman moduak eraldatzeko gaitasuna du, eta horrekin kontsumo moduak. Zorionez, pertsona nagusi gehienak harreman modu askotariko dinamiketan bizi izan dira euren bizitza luzeetan, eta badute teknologiarekin ematen duten denbora eta modua mugatzeko eta bideratzeko nahia.

Aurreko astean nonbait irakurri nuen *AA* edonon txertatzeko joera hori gaur egun haurren jostailuetara heldu dela. Eta pelikulan bezala, badirela jostailuzko hartz adimentsuak. Jostailu adimentsu horiek erosterakoan, zer bilatzen dute gurasoek? Zein ekarpen egiten diete haurrei orain arteko jostailuekiko? Zein jolas dinamika mota sortzen gabiltza? Zein eragin izango du jolas mota horrek haurra izango den pertsona helduan? Zelako gizarte eredua bultzatuko dute jostailu adimentsuekin txikitari jolastu zuten pertsonak?

AA pelikularen hartza gogoratzean, bakardadea datorkit burura. Batzuetan hain beharrezkoa dena, besteetan, nahi gabe harrapatzen zaituena. ●

Hizkuntza eskakizunak berriz jomugan EAEko Auzitegi Nagusiak legearen konstituzionaltasuna zalantzan jarri du



ONINTZA IRURETA AZKUNE

EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak Euskal Enplegu Publikoaren Legearen artikulua baten legezotasunaz Konstituzio Auzitegiari galdetzea mahai gainean jarri du. PPK eta Voxek eragin dute Auzitegi Nagusiaren galdera. Enplegu Publikoan euskara normalizatzea eragozteko helegiteak jarriak zituzten eta EAEko Auzitegi Nagusia horiek aztertzen ari da. Prozesu horretan, Auzitegi Konstituzionalari iritzia eskatzeko aukera mahai gainean jarri du. Fiskaltzak ontzat hartu du Auzitegiaren proposamena. Euskal Enplegu Publikoaren Legearen 187.5 artikularekin daukate zalantza. Artikulu horrek administrazio publikoko lanpostu guztietan hizkuntza eskakizunak zehaztu behar direla jasotzen du.

BENGOETXEA SAILBURUA "HARRITUTA ETA KEZKATUTA"

Auzitegiak egindako iradokizuna ez-ohikotzat jo du. Lan Eskaintza Publiko zehatz batzuen inguruan egon diren sententziak gogorarazi ditu, "baina honek, beharbada, kolokan jartzen du gure marko juridiko osoa". Erabaki honen aurrean kezka larria adierazi du, eta "jauzi larritzat" jo du egindako urratsa. Gober-

nuak alegazioa jarri duela azpimarratu du eta gehitu du Auzitegiaren proposamenak "ez daukala zentzurik" eta legea "guztiz konstituzionala" dela.

EUSKARA ESKAKIZUNEN AURKAKO ERASO ETENGABEA

Euskararen aurkako ehun sententzia, bi urteko epean. Gehienak hizkuntza eskakizunen sistemari lotutakoak. Josu Azitiria legebiltzarkideak datu hori eman zuen Euskal Enplegu Publikoaren Legea aldatzeko EH Bilduk Legebiltzarrean lege proposamena aurkeztu zuenean. Enplegu publikoan euskararen normalizazioari etengabe jartzen ari zaizkien oztopoak geldiarazteko asmoz, EAJk eta EH Bilduk lege erreforma bana aurkeztuak dituzte.

Euskalgintzak eta hainbat sindikatuk urteak daramatzate erasoak salatzeko eta lege babes handiagoa eskatzeko. 2022ko irailean, EAEko sektore publikoaren euskalduntzeari 15 urteko epe-muga jartzeko adostasuna aurkeztu zuten ELAk, LABek eta Kontseiluak.

Bi sindikatuak abenduaren 16rako eta 17rako mobilizazioak antolatu dituzte, hurrenez hurren, Iruñean eta Gasteizen, Euskararik gabe, kalitatezko zerbitzu publikorik ez lelopean. ●